


ANTXIÑAKO 📷 FOTOGRAFIAK



Emakumien moda-desfilia

O tempora, o mores! Ohiturak eta garaixak aldatu dirala, bai horixe! Guk geuk ezagutu eta bizi izan dittugu makinatxo batzuk. Gu baiño gaztiaguak diran gehixenairi arraro samarrak suertauko xate gaurko fotografia honeik. Baiña ez pentsau: **desfile honek nobedade-moduko bat ekarri otsan Oñatiko herrixari**. Alde askotatik begiratuta, gerra osteko lehenengo bi hamarkadak latzak eta illunak izan gittuan sarritan. Murrizketak eta debekuak pittintxo bat, asko ez, gutxiketan hasi ziranian 1960tik aurrera, orduko **gazterixia saiatu zan arlo barrixak jorraketan**.

Era askotako ahalegintxuak burutu ziran. Hasieran eliziaren babespeian, baimenak eskuraketako-eta, beste erremeixorik ez eguelako. Gerora beste urtenbide eta zirrikitu batzuk be billatu zittuain gaztiak. Argazki honeittan agiri diran **irudixak nekez ikusi zeikiein urte batzuk lehenago**: neska-gazte pillatxua euren soiñekorik dotorienekin apaindduta, kapela eta guzti batzuk; **artian etzan frakarik halako desfiletan erakusten; bernak bistan, baiña belaunak ez**; dana dala, laister jantziko zittuain emakume oñatiarrak frakak eta minigonak be.

Semana de la mujer izeneko jardunaldi batzuen barruan ospatu zan moda-erakustaldi hau. Konturatuko zarai erderia zala nagusi sasue haretan, eta halaxe jarraitu eben beste puska batian be. Oñatiko parrokiariaren **Acción católica** saillak 1965eko garagarillaren bigarren erdialdian modutu eben emakumiari eskiñittako aste horretako programia: **hitzaldixak eta pelikulak** zabaldu barri zan abadetxeko **Garoa** zinian; eta azkenik **moda-desfilia** pelotaleku ondoko **Aloña** zinian. Desfile-eguneko gorabeherak eta ibillerak antolaketara **Bilbotik etorri zan kontu horreittan ekixen emakume bat**, eta harek ekarri ei zittuan desfilatzaille batzuk luzidutako kapelak be.

Beheko fotografixan partehartzaille gehixenak agiri dira Aloña zineko eszenarixu estuan: **neska ugari eta ume banaka batzuk**. Ia zeintzuk ezaguketan dittuzuen. Goikuan, hurragotik hartuta, desfilatzaille horreittako dozenerdi, jaialdixaren akaberan erdiko pasarelatik erretiraitten. Eskumatik ezkerreara honeitxek dittuzue: **Lourdes Zurutuza, Pilar Elorza, Mari Karmen Madina, Juanita Uribetxeberria, Arantxa Balzategi eta Arantxa Galdos**. Desfilia asko gustau ei xaten Aloña zine-saloia topetataraiño bete euen ikusliai.

Argazkixak J. L. Plazaolak ataratakuak dira. Guri Juanita Uribetxeberriaren bittartez heldu xaku. Informaziñua, barriz, Juanita berari, Karmen Zurutuza, Amaia Igartua, Belen Zumalde eta Rexu Letamendiri zor dostegu. Milla esker guztioi!